

Disko berria kaleratu du Stai Zittok

Hasieratik arrakastaren bidea jarraitu du Stai Zitto musika taldeak eta bere kideek ez dute bidaia amaitu nahi. Ermuko musika taldeak bigarren diskoa argitaratu berri du, 'Bidaia', eta orain arte jarraitu duten jarrera positiboarekin egingo diote aurre bere zaleei nahi dutena emateko. Durangoko Plateruena Kafe Antzokian egingo dute bigarren disko honen aurkezpena apirilaren 7an.

Maila handiko musikariak izango ditu bidelagun Stai Zitto musika talde ermuarrak bere disko berrian. 'Bidaia' da rock melodikoa lantzen duen taldearen bigarren diskoaren izenburua eta Aitor Gorosabel, Zuriñe Hidalgo eta Asier Fragas 'Furbah' artisten kolaborazioa jaso dute lan berria gauzatzeko orduan. Areetako (Getxo)

Pan-Pot Estudioak aukeratu dute diskoaren grabazioa egiteko eta Alberto Macias ibili da grabazioa gidatzen eta produkzio lanetan.

Diskoari izenburua ematen dion 'Bidaia' abestia izango da Stai Zittoren bigarren diskoaren lehen singlea, eta TAOM-ekin (The Arte Of Making) Urbasako Natur Parkean (Nafarroa) grabatutako bideoklipa ere aurkeztuko dute.



Stai Zittoko kideen nahia "jotzea eta jotzea" da, "Euskal Herriko txoko eta bazter guztietan". Momentuz, jakina da apirilaren 7an Durangoko Plateruena Kafe Antzokian disko berria aurkeztuko dutela. Ekitaldi honetarako lagun bereziak gonbidatu dituzte, eta sor-

presak eta kolaborazioak egongo dira. "Ospakizun handia izango da", euren berbetan.

Abesti berri eta kantu zaharrez osaturiko lana da 'Bidaia'. Izan ere, taldeak atzera bota du begirada eta euren lana beraiek nahi zuten bazter guztietara zabaltzeko. Horregatik osatu dute abesti zahar eta berriak nahastean dituen lan hau. Beraz, taldearen lau urteetako lana eta bizitza erakusten du 'Bidaia' diskoak.

Kantu berriek "doinu freskoak, melodia errazak eta erritmo biziko ereserkiak" ekartzen dituzte, Stai Zittoko kideen berbetan. "Esaten dugun guztiaren gaineko jarrera eta gogo bizia, eta irabazteko, espektatibak gaintzeko, harresiak lurrera botatzeko, positibotasunari dei eginez bizitzari eta askatasunari ozen kantatzeko", aldarria egiten du Stai Zittok.

Ekhi Velar



esanline®



846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esanline.es

